

Donostian, 2019ko apirilaren 11n

IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, DONOSTIA ZERGA PARADISURIK GABEKO HIRIA DELA ALDARRIKATZEA DELA ETA Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo KONTROL MOZIOA aurkezten dut, hil honetan OGASUN BATZORDEAN Donostia zerga paradisurik gabeko hiria dela aldarrikatzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ogasun Batzordean adierazi genuenez, 2016ko azaroan mozio bat aurkeztu genuen, Udalak zerga paradisetan sozietateen egoitzak dituzten enpresak edo haien egoitza nagusia haietakoren batean helbideratuta duten sozietateak kontratatzea edo haiekin harremanak izatea ekiditekoa, Oxfam Intermon erakundea helburu horrekin gauzatzen ari zen ekimena jasota. Mozioak lau puntu zituen, eta horietako bat izan ezik, gainerakoak guztien adostasunarekin onartu genituen.

Ogasuneko Batzordean, zinegotzi ordezkariak eta garbi adierazi zuen “zerga paradisurik gabeko hiria garela”, baina “argazkia egitea” falta zaigula.

Argazkietatik haratago, gure ustez, onena litzateke kontratazio publikoan klausula sozialak sartzeko jarraibideen bitartez egitea, berariaz sartuta klausula bat, zeinaren ondorioz enpresek paradisu fiskaletan helbideratutako banku kontuetan legez kanpoko finantza eragiketarik ez dutela dioen aitortpena aurkeztu beharko duten. Hala, kontratazio baten ondoren jakinez gero ez dutela bete aitortpen hori, Udalak nahikoa informazioa izango luke enpresa hori etorkizuneko kontratazioetatik kanpo uzteko, dagokion zehapena ezarri ahal izateaz gain.

Gainera, klausula hori sartuta, Lankidetzak Kontseiluak onartu zuen Lankidetzarako III. Plan Zuzentzailea betetzea ekarriko luke, hain zuzen ere, C helburu estrategikoa: Politiken koherentzia.

Honegatik guztiagatik, honako hau egiten dugu

Hori dela eta:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernua hertsatzen du kontratazioan klausula sozialak jasotzeko jarraibidean beharkizun bat sartzera, hala, kontratu publikoak egin nahi dituzten enpresek paradisu fiskaletan helbideratutako banku kontuetan legez kanpokotzat jotzen diren finantza eragiketarik ez duten adierazpena egin dezaten, eta, ez betetzekoan, zigorra ezartzeko.

Sinatua: Amaia Martin Garin,

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.